

# **BURLATA BLUES I. ARGAZKI LEHIAKETA**

## **OINARRIAK**

### **1. GAIA**

Aurkeztutako argazkietan 2025ean Burlatan egindako Blues Kontzertuak soilik islatu beharko dira. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du argazkiek baldintza hori betetzen dutela

### **2. ARGAZKIEN EZAUGARRI TEKNIKOAK**

Gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango dira paperean, zuri-beltzean edo koloretan. Argazkiaren tamaina librea izango da, eta argazki bakoitza 40 x 50 zm-ko kartoi mehe beltz batean muntatu behar da.

Argazkia editatzea onartua dago, eta errebelatze digitalaren berezko doikuntzak ere posible izanen dira (zurien balantzea, esposizioa, kolore mailak, kontrastea, saturazioa eta fokatzea...). Argazki originalari ezin zaizkio elementuak ezabatu edo elementu berriak gehitu.

Aurkeztutako argazkiak originalak eta argitaratu gabeak izanen dira, nahitaez, eta lehiaketa batean aurretik saririk jaso ez izanak.

### **3. AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA**

Lanak Burlatako Kultur Etxeko atariko mostradorean aurkeztuko dira, 12etatik 14etara, astelehenetik ostiralera, 2025eko abuztuaren 21etik 27ra.

### **4. AURKEZTEKO MODUA**

Argazkiak atzealdean titulatura eta gutunazal itxi batekin aurkeztuko dira. Gutunazal horretan parte-hartzailearen datu pertsonalak sartuko dira: izena, abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa. Gutunazal txiki horren kanpoaldean, argazkiaren izenburua idatziko da.

### **5. EPAIMAHAIA**

Epaimahaia Burlatako "Desenfoque" Argazki Elkarteak izendatutako hiru pertsona osatuko dute.

Lanen kalitate teknikoa, originaltasuna eta sormena balioetsiko dira. Epaimahaiari dagokio oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein gorabehera ebaztea eta erakusketa osatuko duten lanen hautaketa (partaide bakoitzeko gutxienez bat).

## **6. SARIAK**

- Lehen saria: 200 €
- Bigarren saria: 150 €
- Hirugarren saria: 100 €

Era berean, saritutako argazkiak Burlata Blues Bar elkarteak argitaratutako 2026ko egutegian sartuko dira. Sariak eman gabe utzi ahal izango dira, epaimahaiak hala erabakiz gero.

Pertsona berak ezin izango du sari bat baino gehiago jaso. Saritutako lanen egileei telefonoz jakinaraziko zaie epaia.

## **7. ERAKUSKETA ETA ARGAZKIEN JABETZA**

Argazki sarituak Burlada Blues Bar elkartearen jabetzara pasako dira, eta “Desenfoque” Argazki Elkartearekin eta Burlatako Udalarekin batera eta irabazi asmorik gabe, haiek erabiltzeko, erreproduzitzeko eta zabaltzeko eskubideak izango dituzte, beti egiletza espresuki aipatuz, inolako kopururik ordaindu behar izan gabe.

Saria jakinarazi ondoren, saritutako argazkiak antolatzaileei eman behar zaizkie euskarri digitalean, posiblea den kalitaterik gorenean.

Parte-hartzaileek beren gain hartzen dute hirugarrenen eskubiderik ez izatearen erantzukizuna, bai eta saritutako lanen eskubideengatiko erreklamazioena ere.

Saritutako argazkiekin, aurkeztutako irudien hautaketa batekin batera, erakusketa bat egingo da Burlatan irailean. Erakusgai egongo diren lanen kopurua aretoaren edukierak mugatuko du.

Saririk jaso ez duten argazkiak Burlatako Kultur Etxean jaso ahal izango dira erakusketa amaitu ondoren (ez dira postaz bidaliko). Hilabeteko epea izanen da eta epe hori igaro ondoren lanak suntsitu egingo dira.

## **8. OINARRIAK ONARTZEA ETA INTERPRETATZEA**

Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarriak eta epaimahaiak hartutako erabakiak onartzea.

Oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten argazkiak lehiaketatik kanpo geratuko dira